



LANBIDE HEZIKETAKO PRESTAKUNTZA PROIEKTU BERRIAK

Ekainaren 20an Etengabeko Ikaskuntzako zuzendariak deitutako batzarrean prestakuntza proiektu berrien informazioa eman du.

ZUZENDARITZAKO PARTAIDEENTZAKO PRESTAKUNTZA

Lanbide Heziketako zuzendaritza taldetako partaideentzat ikastaro bereziak prestatzen ari dira maila ezberdinetako modulutan antolatua, horien artean: legedia, prozesuen kudeaketa, marketina, baliabide tekniko-finantzieroen gestioa, ...

Lehenengo fase batean zuzendari berriak sartuko lirateke. Ikastaro hau Berrikuntza Pedagogiko sailak antolatzen duenaren baliokidea izango da. Aurrerago zuzendaritzetako beste partaideentzat hedatuko da.

PROIEKTU ELEANITZA LANBIDE HEZIKETAN

Lanbide Heziketako zuzendaritzak heziketa zikloen eredu eleanitza ezartzeko asmoa du 2007/2008 ikasturteari begira. Ezarpena ikastetxeko proiektu gisa aurkeztu beharko da eta horretarako, heziketa zikloen irakasle finkoek 3 urtetarako konpromisoa hartu beharko dute. Heziketa ziklo hauetan eskola emango duten irakasleek ingelesa gaitasun berezia beharko dute.

Prestakuntza beharrak aztertzeke Lanbide Heziketako Etengabeko Ikaskuntzako zuzendaritzak gutun bat bidaliko dizue. Helburua hizkuntza gaitasun nahikoa duten irakasleak detektatzea eta horietarako berezko ikastaroak, borondatezkoak, prestatzea da. Ikastaro hauetan funtzionarioek, egonkorrek eta ordezkoez parte hartu ahalko dute hurrenkera honek ematen duen lehentasunaren arabera.

Ikastaroak 2006/2007 ikasturtean hasiko lirateke eta bi egunetan metatuko diren 6 ordutako murrizketa egongo litzateke. Bi egun horietako bakoitzean 5 ordutako prestakuntza saioak egingo lirateke ikasturtean zehar. Ikastaro hauetan parte hartuko duten irakasleek 3 urtetarako konpromisoa hartuko dute. Hauetatik lehena prestakuntzarako eta gainontzeko biak eskola emateko izango zirelarik.

LABek prestakuntza honen beharra ikusten du baina eredu berri honen ezarpena Planifikazio Batzordean negoziatzea exijitu du, indarrean dagoen Lan Hitzarmenak adierazten duen moduan. Ezin dugu ahaztu eredu honen ezarpenak planifikazioan, irakasleen lanaldian eta euskarazko zikloen hedapenean izan dezakeen eragina.

<http://www.labsindikatu.org/sectoreak/irakaskuntza/publika>

Araban	Bizkaian	Gipuzkoan	Nafarroan	Iparaldean
Bueno Monreal, 10 Behea 01001 Gasteiz Telf.: 945 259 544 Faxa.: 945 258 039 irakaskuntzaaraba@ labsindikatu.org	Rekalde zumarkalea,62 48010 Bilbo Telf.: 944 706 900 Faxa.: 944 706 909 irakaskuntzabizkaia@ absindikatu.org	San Bladi 1, behea 20013 Donostia Telf.: 943 458 562 Faxa.: 943 456 645 irakaskuntzagipuzkoa@ labsindikatu.org	M.Zelaieta 75, 2.A 31014 Iruñea Telf.: 948 382 474 Faxa.: 948 221 276 irakaskuntzanafarroa@ labsindikatu.org	13 Marengo Karrika 64100 Baiona Telf.: 0559595020 Faxa.: 0559595021 baiona@ labsindikatu.org